


## Mikel Laboa gogoan daukagula, Xabier Lete joan zaigu

2010/12/14

**Abenduaren 1ekoia** arratsalde berezia izan da EKTren 3. edizio honetan. Lehen saioan, Ibon Rodriguezek eskaini digu Mikel Laboa, kultur transmisioko eredu izeneko hitzaldia. Hitzaldiaren mamia Ibonek berak EKTn eginiko proiektua izan da.

Bigarren saioan, berriz, Iñaki Urruzolak antolatu eta Onintza Enbeitak aurkeztutako omenaldiari heldu diogu. Idoia Trenorrek aukeratutako argazkiak lagun, hortxe etorri dira, hurrenez hurren, Ixidro Elgezabalen gogoetak, Iratxe Ibarren bat-bateko bertsoak, Eneko Barberenaren okurrentziak, Miriam Lukiren poemak, Erika Lagoma eta Beñat Gaztelumendiren bertsotako jarrak, Karlos Aizpuruaren performancea, Isabel Diazaren olerkiak, Nere Erkiagaren dantzak, Enrike Letona eta Ane Alonsoren joaldiak, Eñaut Elorriagaren kantuak eta bildutako guztien omenezko kantuak ere bai, bukatzeo, Amaia Zinkunegiren zuzendaritzapean. Juan Luis Etxabururi eskerrak, orobat, aukera izan dugu Mikel gertuago, iku(s)garriago izateko. Kepa Matxainen txinaurri lanari esker eta Mari Carmen Garrido ateratako argazkiei esker, hurrengo batean ere gogora ekartzeko moduan izango dugu 2010eko abenduaren 1a.

Geu eta geurez, Mikel Laboa lagun. Bertan bizi izandakoa norberak aldean daraman moduan, taldetasunak berak damaiguna elkarrekin daramagu, gozagai eta gozagarri.



### Xabier Leteren heriotza

Goxotasunaren ostean, ordea, trago garratza berriro abenduaren 4an: Xabier Lete hil! Bestelakoan zain, biltzen gaituen graduondo honetan Xabier Letek berak utzi digun arrastoari errepara diezaiogun:

- Azkenekoz, 2009ko maiatzaren 13an izan zen Huhezin. Hara Euskadi Irratian
- Eta Berria.info jasotakoak
- Aurretik ere izana zen gure artean, 2008ko apirilaren 29an. Orduko Euskadi Irratian, 13. Saioan.

Begiak barrez barre, bihotza negarrez... halaxe gogoratzen zaituztegu, sortzen eta birsortzen jarraitzeko kemenez.